

UNITATE DIDAKTIKOA: Lehen hezkuntzako 3. Zikloa

Okaren ertzean

1. TOLSTOI-REN testu bat irakurtzea

Ariketari ekiteko, León Tolstoi nor zen azaldu behar die irakasleak ikasleei.

- Idazlea: León Tolstoi eleberrigile errusiarra (1828-1910) gizarteari eta moralari buruzko pentsalari handi bat izan zen, eta garai guztietako errealismoaren idazle garrantzitsuenetako bat.
- Testua: **Okaren ertzean**.

Ikasleek ozen irakurriko dute Tolstoi-ren idatzia. Testuaren zati bana emango zaie taldeei.

TESTUA:

1 Taldea:

Okaren ertzean, zoriontsu bizi ziren baserritarrak. Lurra ez zen aberatsa, baina, etengabe lantzen zutenez, lasai bizitzeko adina ematen zien, eta gordetzeko ere zerbait geratzen zitzaien.

2 Taldea:

Iban baserritarra Tulako azokara joan zen behin, eta bi untxari erosi zituen etxea zaintzeko. Handik gutxira, txakurrak ezagun egin ziren Oka ibarreko bazter guztietan egiten zituzten erasoengatik. Triskantzak egiten zituzten soroetan, eta ardiei eta zekorrei oldartzen zitzaizkien.

Nicolaik, Ibanen auzotarrak, beste bi untxari erosi zituen Tulako lehen azokan, bere etxea, soroak eta lurak defenda zituzten.

3 Taldea:

Baina, baserritarrek, beren buruak hobeto defendatzeko, txakurrak ugaritu ahala, txakurrok orduan eta gehiago eskatzen zuten. Ez zeuden pozik hezurak eta etxeko gainerako hondarrak janda. Baserritarrek txerriki onenak gorde behar izan zituzten txakurrentzat, ukulu estaliak eraiki behar izan zizkieten, eta denbora gehiago eskaini behar izan zieten..

4 Taldea:

Hasieran, txakur zaindari berriek ika-mikak izaten zituzten zaharrekin, baina segituan egin ziren lagun, eta, azkenean, denak elkarrekin ibiltzen ziren gaiztakeriak egiten.

Beste auzotarrek ere untxariak erosi zituzten, arriskua handitzen ari zela ikusita. Urte gutxiren buruan, hamar edo hamabost txakur zituen baserritar bakoitzak. Ilundu orduko, hots txikiena entzun bezain laster hasten ziren korrika amorratuta, eta hain zalaparta handia sortzen zuten, ezen alproja-multzo bat etxean lapurretan ari zela baitzirudien. Nagusiek ongi ixten zituzten atepak, beldurraren beldurrez, eta zera esaten zuten:

-Jaungoiko maitea! Zer egingo genuke gure etxea defendatzeko untxari ausart horiek ez bagenu?

5 Taldea:

Bien bitartean, miseria latza nagusitu zen herrixkan; haurrak, trapu zarpailez jantzita, zurbil zeuden, hotzez eta gosez; helduek, berriz, ez zuten familia asetzeko behar adina janari ateratzen lurretik, nahiz eta egunsentitik ilunabarrera arte lanean aritu.

6 Taldea:

Behin batean, herriko gizon zahar eta jakintsuenak kexatzen entzun zituen, zorte txarra zutela eta. Erru guztia zeruari botatzen ziotenez, hau esan zien:

- Zuen da errua. Kexatzen zarete haurrentzat ogirik ez duzuelako, mehe eta zurbil ahultzen ari direlako. Haatik, makina bat txakur lodi eta osasuntsu dituzue denek etxean.
- Etxea defendatzen dute! – oihera egin zuten baserritarrek.
- Defendatu? Norengandik defendatzen zaituztete?
- Jauna, txakurren laguntzarik gabe, kanpoko txakurrek gure abereak akabatuko lituzkete, baita gu ere.
- Ez duzue ezertxo ere ulertzen! – erantzun zien zaharrak – Ez zarete konturatzen besteen txakurrengandik defendatzen zaituztetela zuen txakurrek! Inork txakurrik ez balu, ez zenukete defendatzailerik beharko eta txakurrek ez lukete jango zuen haurrak elikatze behar duzuen ogia. Untxariak begi-bistatik kentzen badituzue, bakea eta oparotasuna izango

dituzue berriz etxean.

Grupo 7:

Gizon zaharrak emandako aholkua bete zuten: txakur defendatzaileak ondotik kendu zituzten. Urtebete igaro ondoren, gainezka zituzten elikagaiak gordetzeko aletegiak eta despentsak, eta osasuna eta oparotasuna nabari zen haien seme-alaben aurpegietan.

2. Testua aztertzea

Galdera hauei buruz zer iritzi duten azaltzeko eskatu:

- Zer kontatzen du istorioak?
- Zer iruditu zaizue deigarriena?
- Pertsonaia guztien artean, nork jokatu du hobekien?
- Zergatik konpondu da egoera denen artean?
- Zer irakaspen du ipuinak?
- Tolstoi-k ipuin gisa kontatzen duen antzeko benetako egoeraren bat bururatzen zaizue?

3. TOLSTOI-REN ipuina marraztea

Ipuinaz gogoeta egin ondoren, ikasleei eskatu behar zaie talde bakoitzak irakurri duen zatia islatzen duen marrazkia egiteko. Taldeko kide guztiek marraztu behar dute zerbait marrazkian (ados jarri behar dute, konfiantza izan behar dute taldeko gainerako kideek egiten duten horretan...). Gero, ordenan, bata bestearen atzetik jarri behar dira marrazkiak, istorioa modu grafikoan ulertzeko moduan.

Azkenik, istorioaren irakaspena adierazi behar dute kartoi mehe batean.

4. Ekintza sinbolikoaren prestakuntza

Ipuina aztertu ondoren denen artean bakearen kontra doazen jarrerak pentsatu beharko dituzte. Ideia hauek bildu ondoren paperetean idatzi edo marraztu beharko dira. Paper hauek DENIP egunean eraikiko den harresian erabiliko diren zuku edo esne-kaxa hutsak estaltzeko balioko dute.

Ikasgelan lanean jarraitzeko:

Mundu zuzenagoa eta baketsuagoa eraikitzeko ahalegina ezin daiteke egun bakar batera mugatu. Hori dela eta, Intermón Oxfam-etik proposamen didaktiko batzuk egin nahi dizkizuegu ildo horretan lanean jarraitzeko:

- **Bakea eraiki dezagun** monografikoa (4 orduko unitate didaktikoa). Bakeari, indarkeriari edo gatazkari buruzko hausnarketa proposatzen du. Gatazken aurreko jarrerak ebaluatzea du asmoa, arazoei irteera kooperatiboa eskaintzeko.

Material hori web-etik deskargatu dezakezu (www.IntermonOxfam.org/educar/monograficos) edo **902 330 331** telefonoaren bidez eros dezakezu.

- **Armak kontrolpean** maleta pedagogikoa. Ikasleentzako eta irakasleentzako hainbat materialek eta baliabidek osatzen dute proposamen globalizatu hau. Proposamenak helburu hauek ditu: armek gizartean duten eragina ezagutzea, indarkeriaren kultura indargabetuko duten balioak eta jarrerak sustatzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko beste bide batzuk aurkitzea.

Hemen aipatzen diren materialek osatzen dute maleta; material horiek guztiak batera edo bakarka eskuratu daitezke

902 330 332 telefono-zenbakira deituta:

- **Dossier informatzaile bat:** "Vidas destrazadas".
- **DVD bat:** Kontroletik kanpo
- **4 lan-koaderno:**
 - Haurren zikloa: "Memed-en oparia"
 - Lehen zikloa: "Ezusteko bisita"
 - Bigarren zikloa: "Koloretako tximeletak"
 - Hirugarren zikloa: "Bakearen aldeko oihua"
 - 2 gidaliburu didaktiko: haurren zikloa eta 1. zikloa; eta 2. eta 3. zikloak
 - 1 ginkana: "Huamborako bidean"